

## PRENTSA OHARRA

# ***BC3k karbono gutxiko gizarte batera igarotzeko eta EBk finantzatutako proiektu handi batean parte hartzen du***

1

[Bilbo, 2015ko Urriak 5] EBren TRANSrisk proiektu berriak aurreneko egunotan egin zuen lehenengo bilera Bruselan. Proiektuak (Transitions pathways and risk analysis for climate change mitigation and adaptation strategies/Trantsizio-bideak eta arrisku-azterketa klima-aldaketa geldiarazteko eta egokitzeko estrategietarako) 7,4 milioi euroko finantzaketa jaso du Europako Batzordetik Horizonte 2020 programako Gizarte Erronkak zutabearen testuinguruan, eta BC3 partzuergo horretako kide nagusietako bat da.

EBk helburu politiko handinahikoak ezarri ditu 2050ean karbono gutxiko gizarte batera igarotzeko. Bide-orri xehatua 2011n argitaratu zen, eta bertan adierazten da EBk % 80 murriztu beharko lituzkeela bere emisioak 1990eko mailetatik 2050erako etxeetarako ezarritako murrizketen bidez bakarrik, eta, ondoren, beste % 40 datozen 15 urteotan. Helburu horiek bete ahal izateko oinarrizko aldaketak egin behar dira energiaren eskaeran eta sorkuntzan.

Inpaktuak, aldaketa geldiarazteko aukerak eta klimaren bilakaera aztertu eta ebaluatzeko metodoek une hauetan erabateko ziurgabetasuna adierazten dute. TRANSrisk proiektuak sortuko duen esparruaren baitan arriskuak eta ziurgabetasunak oinarrizko osagaia izango dira klima-aldaketak EBko, garatze bidean dauden herrialdeetako eta munduko gainerako tokietako ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ongizatean duen eragina geldiarazteko modua aurkitzeko ebaluazioan. Klima-aldaketaren eta garapen iraunkorraren beste dimentsio batzuen arteko loturak ere ebaluatuko dira bertan. TRANSrisk proiektuaren berrikuntzetako bat izango da eragile askok hartuko dutela parte ikerketa-prozesuan karbono gutxiko aukera ezberdinen onargarritasun publikoa aztertu ahal izateko, eta hori laguntza zuzena izango da azkenean politikak ezarri beharko dituzten edo horien ondorioak aztertu beharko dituzten arduradunentzat.

TRANSrisk proiektuan hamabi erakundek hartzen dute parte. Mikel González-Eguino doktoreak, BC3ko ikerlari nagusiak, honako hau esan du: “Gustura nago BC3 EBk finantzatutako proiektu handi honetako partaide nagusietako bat delako, eta kontuan izan behar da Europako, Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako partaideak ere badirela. Gure ikerketaren bidez karbono gutxiko gizarte batera ahalik eta azkarren iristen lagundu nahi dugu, eta, aldi berean, klima-aldaketaren ondorioak okerrenak saihestu nahi ditugu. Arduradun politikoek hobeto funtsatutako erabakiak hartu ahal izateko era ezberdinetako irtenbideekin zerikusia duten arazoak eta sinergien ebaluazioa izango da BC3k proiektu honi egingo dion ekarpena”.

**Harremanetarako kontaktua:** Ainhoa Azkarate  
[ainhoa.azkarate@bc3research.org](mailto:ainhoa.azkarate@bc3research.org) /Telefonoak: 94-4014690/ 689425619